

# Bitartean



MIKEL OTERO GABIRONDO  
LEGEILTZARKIDEA

**A**sko hitz egin eta idatzi da azken hilabeteotan eskala handiko energia berriztagarrien proiektuen inguruan. Modu batean edo bestean, hamaika aldiz errepikatu dira aurkakotasuna mami-tzeko arrazoiak, izan enpresen irabazi gosea, biodibertsitatearekiko inaktua, planifikazio falta, nekazaritzarekiko lehia, material zehatzen urritasuna edo beste hainbat. Guztiok kezkatzen gaituzten kontu horiek buruan, posizio-namenduetan ñabardurak daude. Batzuk “horrela ez” diote, besteek, aldiz, “hemen ez” eta bada “inon ez” esaten duenik ere. Dena den, bada joera orokortu bat, gaiaren inguruan hitz egin eta idaztera animatu direnen artean (ez dira gutxi), trantsizio energetikoan lehendabizi zer egin behar den azaltzeko; “lehendabizi kontsumoa murriztu behar da”, “lehendabizi gelditu eta pentsatu egin behar da”, “lehendabizi gune degradatuak erabili behar dira”, “lehendabizi indar harremanak aldatu behar dira”. *Lehendabizi* horien guztien aurrean, galdera berdina datorkit burura: bitartean, zer?

Ze bitartean, Kortaturen esaldia goan, *kriston gasa dabil!*

Berriztagarriak  
hedatzearen balizko  
kalteen parean,  
berriztagarriak ez  
hedatzearen eguneroko  
kalteez gehixeago hitz  
egin beharko genuke

Bitartean, Santurtziko portuan mundu zabaleko gas fosilaren sarrerak errekor historikoa hautsi du. Bitartean, Hego Euskal Herrian kontsumitzen dugun elektrizitatearen %70 sortzeko, gasa erretzen dugu, eta EAEn zerbaki hori eskandaluzko %90era igo zen iaz. Ez nolanhikoa, gainera, hein batean frackingaren bitartez lorturikoa, nahiz eta “fracking ez, ez hemen, ez inon” oihukatu genuen. Bitartean, kontsumoak ez ditugu modu nabarmenean jaitsi, are gutxiago eten. Bitartean, batez beste 8 tona CO<sub>2</sub> isuri genituen iaz Euskal Herrian pertsona bakoitzeko, hortik asko

elektrizitatea sortzen, eta larrialdi klimatikoa eta biodibertsitate krisia areagotzen. Bitartean, diru publikoa birgasifikazioan, gas zentral termikoetan edo Euskal Herrikan kanpoko gas ustiaketan inbertitua dago. Eta horri buruz gutxi hitz egiten bada ere, negozio horien etekinek ordaintzen dute autokontsumo berriztagarriko ematen diren laguntza publikoen zati garrantzitsu bat. Bitartean, gas goseak eragin duen prezioen eskaladak guri estuasunak sortu dizkigu, baina prezioen igoerari eutsi ezin izan dioten herrialde txiroei argi mozketan larriak ekarri dizkie, izan Pakistan, Bangladesh edo beste hainbat.

Hori horrela, nago ni berriztagarriak hedatzearen balizko kalteen parean, berriztagarriak ez hedatzearen eguneroko kalteez gehixeago hitz egin beharko genukeela, ze berriztagarrien tamainak edo kontsumoak jaisteko egin beharrekoak eztabaidatzen ditugun bitartean, eguneroko gorpil zoro jasanezinak hor darrai. *Lehendabizi...* dena batera egin behar da! Egin dezagun tentuz eta guztion hobebeharrez, baina ez ditzagun eztabaidak trantsizioa atzeratzeko baliatu, bitartean fosilak errez amildegira goaz eta. ●